

Hitzarmena

Aretxabaletako Udala eta Aretxarte Elkartearen artekoa

Bildurik:

Alde batetik, Aitziber Gauna Elorriaga andrea, NAN 72.582.072-Y duena, adinez nagusia, Aretxarte Elkartearen izenean (IFK zkb: G-20.707.501) eta ordezkartizan.

Eta bestetik, Garikoitz Iturbe Etxebarria jauna, NAN 72.457.054-Q duena, adinez nagusia, Aretxabaletako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Udalaren izenean (IFK zkb: P2001400G) eta ordezkari gisa, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta zera

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.artikuluari jarraituz, Udalaren eskumena da:

-Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.

BIGARRENA: Aretxarte Elkarteak honako xedea du: herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak indartzea eta sustatzea. Horretarako, merkataria, ostalari, eta zerbitzu sektoreari laguntzeko, Aretxarteko eta kanpainara atxikitzen diren establezimenduetan gastatzeko kontsumoa sustatuko duen bonu sistema sortu nahi du bonuen bi kanpainen bitartez.

HIRUGARRENA: 2026ko maiatzaren zazpian idatziaren bidez, Aretxarte Elkarteak bonuen lehen kanpainarako dirulaguntza eskatu dio Aretxabaletako Udalari. Eskabidearekin batera diruz lagundu nahi diren jardueren buruzko memoria aurkeztu du.

LAUGARRENA: Aretxarte Elkarteak ez dauka debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak.

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog

BOSGARRENA: Aretxabaletako Udalak onartuta duen dirulaguntzen 2025-2027 eperako plan estrategikoan, besteak beste, honako hau jasotzen da:

Xedea: Programa honen xedea da Udalak Aretxartekin daukan hitzarmenaren bidez, Aretxarteko eta herriko merkataritza, ostalari, eta zerbitzu sektoreari laguntzeko, urtero egingo diren kanpainen barruan kontsumoa sustatuko duen bonu sistema sortzea.

Udalak zer lortu nahi duen:

- Bonuen sistemaren bitartez Aretxarteko establezimenduetan eta herrian kontsumoa sustatzea.
- Herrian erosteko ohitura sustatzea.

Norentzat: Aretxarte Elkartea

Ematekoaren modalitatea: izendun dirulaguntza, hitzarmen erregimenean

Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa: 36.500€, 1.0512.481.431.00.02 2026 "Aretxarteko hitzarmena (bonuak)" partidaren kontura.

Partida honela banatzen da:

- 35.000€ bonuen bi kanpainetarako bideratuko dira.
- 1.500€ bonuen bi kanpainetarako elkarteak izan ditzakeen hainbat gastu diruz laguntzeko (bonuen diseinua, kartelak eta inprenta)

Hori guztia dela eta, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute.

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog

KLAUSULAK

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Alde bien arteko hitzarmen honen helburua da 2026. urtean Aretxarte Elkartek egiten duen lana diruz laguntzea:

Aretxarte Aretxabaletako herriko merkatarik elkartek, urtean zehar martxan jartzen dituen hainbat ekintzengatik, herriko komertzio, ostalaritza eta zerbitzuen sustapena bultzatzen du. Horrez gain, herrian bizitza sortzen laguntzen duen eragile garrantzitsua da.

Horretarako, Aretxabaletako Udalak Aretxarteko eta kanpainara atxikitzen diren establezimenduetan gastatzeko kontsumoa sustatuko duen ondorengo bi bonu kanpaina diruz lagunduko ditu: udakoa eta udazkenekoa.

Guztira 1.750 bonu pack (5€-koak bi, 10€-koak bi eta 20€-ko bakarra) ateratzea aurreikusten da, urtean egingo diren bi kanpainetan banatuta: udakoa eta udazkenekoa.

Udalak bonuen salmentarako baliabideak jarriko ditu eta Arkupe Kultur Etxean erosi ahal izango dira. Aretxarten ardura izango da bonuen salmentaren kudeaketa.

Aretxabaletan erroldatuta dauden 16 urtetik gorakoek erosteko aukera izango dute, eta pertsona bakoitzak bonu bakarra erosi ahal izango du. Bonua eskuratzeko NAN-a erakutsi beharko da.

Bonuak Aretxarteko establezimenduetan eta kanpainara atxikitzen diren establezimenduetan erabiliko dira. Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Erosketa tiketen zenbatekoa bonuaren balio bera edota handiagoa izan beharko du. Hortaz, bonu bakoitza erosketa edota kontsumizio bakoitzean osorik agortu beharko da.

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog

Lehen kanpainako bonuak erosten dituzten pertsonak 2026ko ekainaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean erabili ahal izango dituzte, bi datak barne. Epe hori igarotakoan, bonua baliorik gabe geratuko da. 2026ko ekainaren 8tik aurrera herritarrek bigarren bonua eskuratzeko aukera ere izango dute bonu denak saldu barik jarraitzen badute.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, ARETXARTEK eskumena duen Enplegua eta Garapen Ekonomikoa departamentuaren aurrean egiaztatu beharko du erabili diren bonu guztiak tiketekin batera aurkeztuz, udako bonuak 2026ko uztailaren 6rako.

Bigarren kanpainako edo udazkeneko bonuen kasuan, bonuak 2026ko azaroaren 23tik 2026ko abenduaren 31ra bitartean erabili ahal izango dituzte, bi datak barne. Epe hori igarotakoan, bonua baliorik gabe geratuko da. 2026ko azaroaren 30etik aurrera herritarrek bigarren bonua eskuratzeko aukera ere izango dute bonu denak saldu barik jarraitzen badute.

Udazkeneko bonuen dirulaguntza jaso ahal izateko, ARETXARTEK eskumena duen Enplegua eta Garapen Ekonomikoa departamentuaren aurrean egiaztatu beharko du erabili diren bonu guztiak tiketekin batera aurkeztuz, 2027ko urtarrilaren 8a baino lehen.

Establezimendu bakoitzaren ardura izango da kontsumitzaileak bonuak erabili ondoren, bonua erosketa-tiketarekin batera gordetzea. Ondoren, Aretxarte bera arduratuko da, erabilitako bonuak, erosketa-tiketaren kopiaekin batera udaletxera ekartzeaz zuriak egiterakoan.

BIGARRENA: Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legetik kanpo geratzen da. Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua aplikatuko zaio.

HIRUGARRENA: Aretxarte Elkartearen betebeharrak.

Aretxarte Elkarteak 2026. urtean zehar antolatuko dituen ekintza guztietan Aretxabaletako Udala babesle gisa azalduko da. Honenbestez, argitaratzen dituen kartel, euskarri eta antzekoetan Udalaren logoa agertuko da, Udal honek diruz laguntzen duela adieraziz.

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog

Dirulaguntzen kudeaketan Udalak egin beharreko egiaztatze lanak onartuko ditu, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta lan horiek egiteko errekeritzen zaien informazio guztia emango du.

Jasotako diruaren erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeelako.

Aretxarte Elkarteak jasoko duen dirulaguntza bakar bakarrik dirulaguntzaren xederako erabiliko du.

Dirulaguntza zurituko du, eta ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez baditu, dirulaguntza itzuli beharko du.

LAUGARRENA: Aretxabaletako Udalaren betebeharrak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, eta Aretxabaletako Udalak 2026. urterako onartutako udal aurrekontuekin bat etorriz, Aretxarte Elkarteari 36.500 euroko dirulaguntza ematen zaio 2026. urtean egingo diren bonuen bi kanpainetarako eta bi kanpainetan izan ditzakeen gastuetarako 1.0512.481.431.00.02.2026 partidaren kontura, jarraian adierazitako moduan:

Lehen kanpainan:

Udako kanpainan, 875 bonu pack (5€-koak bi, 10€-koak bi eta 20€-ko bakarra) ateratzea aurreikusten da, non herritarrek 30 euro ordainduko luke bonu bakoitzagatik eta 50 euroko balioa izango duen bonu pack bat eskuratu, gainontzeko 20 euro Udalak jarriko ditu.

Lehen kanpainan, 17.500 euroko zenbatekoaren %70a ordaindu egingo da, hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere Udalak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikulua betez, Udalak datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta egingo die Elkarteak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko. Era berean, Elkarteak ezingo du zorrik eduki Aretxabaletako Udalarekin.

17.500 euroko zenbatekoaren %30a ordaindu egingo da, eta kanpainan izandako gastuekin batera, gehienez 750€, gastu errealen justifikazioa eta zuriketa egin ondoren eta Elkarteak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren, aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

Bigarren kanpainan:

Udazkeneko kanpainan, beste 875 bonu pack (5€-koak bi, 10€-koak bi eta 20€-ko bakarra) ateratzea aurreikusten da, non herritarrak 30 euro ordainduko luke bonu bakoitzagatik eta 50 euroko balioa izango duen bonu pack bat eskuratu, gainontzeko 20 euro Udalak jarriko ditu.

Bigarren kanpainan, 17.500 euroko zenbatekoaren %70a ordaindu egingo da, kanpaina hasi bezain laster, azaroaren 23tik aurrera ordainketa aurreratu gisa, betiere Udalak egiaztatu badu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikulua betez, Udalak datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta egingo die Elkarteak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko. Era berean, Elkarteak ezingo du zorrik eduki Aretxabaletako Udalarekin.

17.500 euroko zenbatekoaren %30a ordaindu egingo da, eta kanpainan izandako gastuekin batera, gehienez 750€, gastu errealen justifikazioa eta zuriketa egin ondoren eta Elkarteak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren, aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog

BOSGARRENA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekarquak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialetako gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.
- f) Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko.

SEIGARRENA: Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da tokiko, eskualdeko, nazioko, nazioz gaindiko eta nazioarteko administrazioetatik jasotako beste edozein laguntzarekin edo dirulaguntzarekin. Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan. Hala gertatuko balitz, elkarteak dirua itzuli egin beharko luke dagokion proportzioan.

ZAZPIGARRENA: Genero-berdintasuna.

Diruz lagundutako proiektua gauzatzerakoan, Aretxarte Elkarteak ezingo du hizkera sexistarik erabili dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan).

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog

Aretxarte Elkarreak ezingo du inolako dirulaguntzarik jaso honako kasuetan:

1. Bere xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen badu.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatua izan bada sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratzeagatik.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez baditu.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, emakume edo emakume-taldeek bereizkeria eragiten duten jarduerak, izan sexuagatik, izan diskriminazio anitzeko faktoreengatik, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

ZORTZIGARRENA: Euskararen erabilera.

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu —euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da. Irizpideak zehazteko oinarri hartuko diren printzipioak azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan zehaztutakoak dira, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboari buruzkoan zehaztutakoak, hain zuzen.

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog

BEDERATZIGARRENA: Jarraipena batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko alde bien artean osatutako jarraipen batzordea eratuko da eta alde bakoitzak kide bana izendatuko du. Batzorde hau alde bietako edozeinek eskatzerakoan batzartuko da hitzarmena betetzeko egon daitezkeen desadostasunak konpontzeko.

HAMARGARRENA: Dirulaguntzaren zuriketa.

Aretxarte Elkarteak jasotako funtsen erabilera egokia zuritzeko konpromisoa hartzen du.

Zuriketa hori, nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30. artikuluan eta lege honen Erregelamenduaren 72. artikuluan xedatutakoari egokituko zaio, lehen kanpainaren zuriketa 2026ko uztailaren 6rako aurkeztu beharko da Aretxabaletako Udaletxean; erregistro elektronikoa bidez, bonuak salbu, eta bigarren kanpainarena 2027ko urtarrilaren 8a baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Jardueren azalpen memoriaz gain egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

- a) Jardueren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.
- b) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Azken sinaduraren egunetik 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean hitzarmen hau. Berau aldatzeko alderdien aho bateko adostasuna beharko da.

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog

HAMABIGARRENA: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa betetzeko, aplika daitekeen guztian.

HAMAHIRUGARRENA: Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduerak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren epea igaro izana.
- b) Alde bien aho bateko akordioa.
- c) Alde bietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu honetan, bi aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, ahalik eta lasterren bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimendua egin eta gero ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua egin duenak beste aldeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoa gertatu dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Kasu horretan, hitzarmena suntsiarazteak eragindako kalteak ordaindu behar izatea ekar dezake.

- d) Hitzarmenaren baliogabetzea deklaritzen duen erabaki judiziala.

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog

HAMALAU GARRENA: Jurisdikzioa.

Hitzarmenaren aplikazioari, interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak alde bien artean erabakiko dira, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarri aurretik, judizioz kanpoko akordio batera iristeko bide guztiak agortuko dira.

Bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek izango dute auzigaiak ezagutzeko eskumena, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

HAMABOS GARRENA: Gardentasun ataria.

Hitzarmena Udalaren gardentasun atarian argitaratuko da.

Eta jasota gera dadin, adostasuna adierazteko, aldeek elektronikoki izenpetzen dute hitzarmen hau, eta azken izenpetzailearen data hartzen da dokumentu hau formalizatzeko datatzat.

Sinatzaileak	ALKATEA, Garikoitz Iturbe Etxebarria ARETXARTE ELKARTEA, Aitziber Gauna Elorriaga
	Documento firmado electrónicamente. Para verificar su veracidad ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAF1SJP.7yog